

## Joxerra

### ASPALDIKO TXANGOAK

MENDIA, BESTERIK EZ

*Bizkarra motxiladuna,  
lainoa zulatzen;  
mendiaren intimitatea hautsi gabe  
mendiarekin bat bakarrik izanez;  
gero eta altuago,  
gero eta bakartiago;  
mendilepoak gainditzen  
lainoak eta mailoak oinpetzen.  
Euri elurra aurpegira dihoakizun  
sudurretik irristatzen  
kokotxaraino tantaka heltzen;  
gorputza izerdietan, eta  
aurpegia izotzetan.  
Bertako lasaitasunez blaitua  
buelatzeko garaia heltzen zaizu;  
zeru hortatik jeitsi behar, bai  
munduko edertasuna eta haunditasuna  
ikusi ondoren,  
zibilizazio zatar honetara itzulia.  
Agur mendiok!!*




Bizutzako Saltoa

Joxerra  
Pyrenaica aldizkarian argitaratua, 1987an

Aralar mendilerrotik nire lehen txangoak egiten hasi nintzenetik, euri dexente erori da. Orduko gaztedia (duela oso gutxi; ez bait gara hain zahar-  
rrak) bagenuen lokal bat Sta. Barbara auzoan; lokala parrokiarena zen eta  
hango apaizaren bat (Roberto), gure arimak bide onetik bideratzen saiatzen  
zen; gauza zail xamar 15-18 urteko neska mutiletaz hitz egiten ari bait gara.  
Elkarteak, "Gazte-Leku" izen egokia zuen. Elkartek, atal ezberdin batzuk  
zituen: musika, zinea, kultura, eta nola ez: mendia.


Guk geuk txangoak antolatzen genituen, bai trenez edota autobusak alo-  
katzen; hortxe izan zen mendiko zirria sartu zitzaidan momentua, eta geroz-  
tik barruan gordetzen dudana. Orduko ateraldi lehenetariko bat hemen aipa-  
tutako dudana da. Hau



tutako dudana da. Hau  
Gazte-lekuko lagun  
talde batek egin genuen  
eta gure helmuga,  
Aralarreko tontorrerik  
altuena: Hirimugarrieta  
(1427 m.). Amezketa  
heritik ateratzen, Ari-  
tzaga menditartetik ze-  
har. Ibilbide hau hain  
ederra iruditzen zait,  
oraindik, nahiz eta ehun  
alditan baino gehiago  
zeharkatu dudana, joaten  
naizen bakoitzean, sor-  
presa berriren bat lilura-  
tzen nauela. Gure ibilbi-  
dea hasteko, Gohierriko  
Amezketa herrian koka-  
tu behar gara; herri  
xamur hau 1615. urtetik  
herri independente bat  
da, lehen Tolosako alka-  
teritza pean bait zegoen.  
Jaiak, S. Bartolome egu-  
nean ospatzen dira, hau  
da, Abuztuaren 25-ean.  
Bere eraiketarik garran-  
tzitsuenak desagertu

egin dira, baina aipatzekoa da Amezketako eliza, S. Bartolomeri eskeinia. Han, egurrezko atari eder bat apartez, ate nagusia, xehetasunez landua eta batez ere, barruko argizaiolak, bakoitza aulki baten aurrean; gure historiako tresna hauek, oso leku gutxitan ikus ditzakegu jada, eta hau da horietako bat; gehienak oso zaharrak dira eta bai ederrak.

Gure ibilbide hasi baino lehen, beti, Bixente Aierberen etxera hurbiltzen ginen agurtzera. Oso gizon kutuna zen



(hil da duela urte batzuk), guk bagenekien, neguan, menditik jeisterakoan bagenuela leku lehor eta goxo bat arropaz aldatzeko, edota gure tortila izoztua berotzeko. Bere etxea museo bat zirudien mendiko taldetako ikurrez, posterrez, argazki zaharrez eta mila eta bat oroimenez beteak.

Ea orain ateratzen gara behin betikoz, kontxo! Ba, herriko, goiko partean, elizaren eskubitik pasako gara, eta zubitxo bat zeharkatzen, harrizko bidezidor aldapatsu batera zuzenduko gara; hilerri txikiaren ondotik pasatuz. Puntu honetan, gaur egun erabakirik hoberena, pista berri bat hartzea da, nahiz eta luzeago izan eta bukolismoa kendu ibilbideari; arazorik gabe eta pista hau jarraitzen, Amezketatik 30 minututara, ibai ondoan aurkituko gara, zubi hondatu bat zeharkatzeko prest, baina kuriositate pixka bat badugu, bide zaharraz geratzen dena eta pista berri hau tartekatuz, "Izpilli-Saletxe" baserriaren atetik pasako gara. Hemen hainbeste istorio protagonista den, Fernando Amezketarra jaio zen, 1764. urtean, bere bizi osoa gosez ibili eta gero, aranezko asekada batez hil zen, 1823-ko Uztailaren 9-ean. Zubia zeharkatzen, Aritzagako ibaiaren gainetik pasako gara (445 m.) eta bidezidor aldapatsua jarraituz, Anduitz izeneko borda gure ondoan izango dugu, bere gainean duen harri arrotik izena hartuz.

Harri-orratz hau oso ikusgarria dugu gure bide alde honetan; Zuparregi (1144 m.) mendiaren iparmendebaldean dago; Artubiren luzapen bat izanez. Mendizaleon artean, oker handiz, Saltari deitzen diogu, bere ondoko borda bezala. Salta-arri, eta ez Saltari, harri orratzetik bereiztua dagoen gandor edo ertza arkaitsuaren izena da. Diotenez, behin, ahuntza batek gandorretik

harri-orrazaren gandorrraraino jauzi egin zuen. Bere altuera itsas gainetik 669 metrokoa da eta eskalabide batzuk edukiz, ez da harritzekoa eskalatzailerren bat bere hormetatik zintzilik ikustea.

Saltari izena Aralar barruan, beste leku batzutan aurki dezakegu, Alotza zelaietan adibidez; han, izen bereko iturritik ez oso urrun harri bat dago, altuera exkaxekoa, baina hiru metroko luzerakoa. Esaten dutenez, aintzinako artzaiek jauzi egiten omen zuten, baina oinak elkartuta.

Beno, ba Saltari izeneko borda ondoan geratu ginenez jarraitu behar dugu, eta gure aurrean ibilbidearen zatirik gogorrena dugu; kararrizko mendi eta erreka zalapartari artean, bidea bihurritu egiten da, eta "ese" biziak eta laburrak eginez gainbera dexente igoko dugu; toki honek Akelo izena du, (erderaz " El Caracol" deitzen diote) eta gure aurrean, ibaitik beste aldera, ia berrehun metrotako urjauzi bat ikus ahal izango dugu, udaberrian benetan ikusgarria izanez, edertasun honek Bizutsako Saltoa izena du. Gure bidezidorren aldapatasuna orain pixka bat apaltzen da, eta meategietako bagonetak gure buru gainean zintzilikan edukiz, eta gure oinetatik metro batzuetara ur gardenezko putzuak ikusiz, ia konturatu gabe, meategietara iritsiko gara (882 m.) Hemen menditartea zabaldu egiten da, giroa zeharo aldatuz; ibaia baretuago agertzen zaigu eta bidea, hemendik aurrera erosoago.

Meategi hauek oso garrantzi haundikoak izan ziren; 1732. urtean lanean hasi ziren, eta duela 50 arte eskas arte, hor aritu dira. Irakurri dudanez, haien galeriaren bat hiru kilometrotaraino luzatzen zen eta hirurehun bat langile hor egiten zuten lan. Meategietatik 30 minututan Pardeluts iturrian izango gara (1049 m.); hementxe da Aritzaga ibaia lur azalera azaltzen den lekua; belardiak, mendiko belardiak hemendik gora hasten dira ere bai.

Gure artzaiek, antzinatik, pilota jokua ezagutzen zuten, baina ez guk ezagutzen dugun moduan; pilota lekua lautada txiki bat zen, "ordeka" izenaduna; atzurrez joko lekua mugatzen zuten eta erdi-erdian marra bat ipintzen talde bakoitzaren aldea bereizte arren. Honek gaur egungo tenis jokua gogorra ekartzen digu baina sare eta erraketarik gabe. Leku horietako bat, Pardeluts iturritik 250 metrotara zegoen, baina orain ez da aztarnarik gertzen. Bidea jarraituz, aldapa handirik igo gabe, bide ondoan, harri bitxi bat topatuko dugu; artzaiek "Amabirgiñe Arrie" deitzen diote. Esaten diotenez, Loidiko gaztetxo bati, amabirgiña agertu zitzaion; bere etxera itzultzerakoan, gertatutakoa kontatu zuen, baina ez zioten hitzik sinistu; beste bi alditan, gauza bera gertatu zitzaion. Hau ikusi eta gero, amabirgiñak, bere oinaren aztarna harriaren goiko aldean grabatuta utzi zuen; oraindik han dago, eta beheraxeago, zulo bat amabirgiñaren irudi txiki bat bere barruan edukiz. Tradizioez, han, eskupekoak uzten dira, limosna moduan. Hemendik aurrera



**Gazteleku "Espedizioa" Igaratzen**

bidea apalago agertuko zaigu, eta ziztu batez, Perileku deitutako belardietan aurkituko gara; duela berrogei edo berrogeita hamar arte, aspaldidanik, han egiten zituzten Aralarreko artzaiek bilerak; S. Juan bezperan egiten omen zituzten; saldu eta erosi egiten zuten, baita ere ahariak trukutzen zituzten artaldeak hobetzeko asmoz. Hemen belarra bai biguina dela, benetan atsegina gure oinentzat. Bide konkreturik ez dago eta, laino egunetan ez da zaila alde honetan galtzea. Belardi erdian norabidezko plaka bat ezarrita dago, plaka honetan, bertatik, inguruko mendi eta herrietara distantziak grabatutak aurkituko ditugu, helbideez gain. Hortik bost minututara, gure arbasoen bi aztarna aurkituko ditugu, bi jentilarri hain zuzen ere (1152 m.); bata bestearen ondoan, "Ipar Igaratza" eta "Hego Igaratza"; hemen, indusketak egiterakoan, gauza interesgarri batzuk aurkitu ziren: lepokoak, keramikazko eltze zatiak, brontzeko punzoi bat, giza hezurak, eskumuturrekoak, e.a.

Berrehun metrotara Beaskin deitutako mendi bizkarrera iritsiko gara (1187 m.). Hemendik oso gertu Errenagako aterpeak ikus ditzakegu; beste bost minututan haien ondoan aurkituko gara (1233 m.). Alderdi honetan aterpe batzuk ditugu, publikoak zein partikularrak. Zaharrena, Aralarreko Adiskideak eraiki zuten 1928. urtean, eta bere presupuestoa, hamar mila

pezetakoa zen. 1928-ko Irailaren 9-ean inauguratua izan zen, Tolosako aita Odriozolak bedeinkatuta. Bere ondoan dagoen baseliza, beranduago eraiki zen, 1946. urtean hain zuzen; beranduago hedatu egin zuten, txikiegia omen bait zen. Errenagatik (edo Igaratzatik, berdin da) ez oso urrun kobazuloak badaude: Ormazarreta (-372 m.) eta Larretxikiko Leizea (-446 m.), azken hau Aralarreko sakonena. 1979. urtean Aranzadiko talde batek miatu zuen eta gorago aipatzen dudan sakontasunaraino iritsi.

Duela 26 urte, lehen aldiz, Errenaga aterpeetaraino iritsi ginen, baina gure mendia, Hirimugarrieta, igo gabe geratu ginen.

## **BIBLIOGRAFIA:**

LA SIERRA DE ARALAR - Luis Millan eta Arantxa Lizarralde

ASCENSIONES Y ESCALADAS DE GUIPUZKOA - J. M. Rodriguez

MONTAÑAS GUIPUZCOANAS - Luis Peña Basurto

FERNANDO AMEZKETARRA - J.Ormazabal

CARTA ARQUEOLOGICA DE GUIPUZCOA - Sociedad Aranzadi

ARALARKO ADISKIDEAK - Donostiako AURREZKI Kutxa

PYRENAICA-110, 116, 123, 131 zenbakiak